



ARABAKO ESI

Lehen Mailako Farmazia / Farmacia Atención Primaria

ESI ARABA: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2022ko uztaila

FARMAKOEN SEGURTASUNA

Hidroxietil-almidoi soluzioen merkaturatzea eten da
Dapagliflozina, ez erabili 1 motako diabetes mellitusa tratatzeko
Bribudina, fluoropirimidinei lotutako toxikotasun potentzialki hilgarria

1

[Jarraitu irakurtzen](#)

MONKEYPOX

Protokoloa eguneratu da

2

[Jarraitu irakurtzen](#)

HILABETEKO BERRIKUNTZAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hilabete honetan, ez da berririk izan

3

[Jarraitu irakurtzen](#)

COVID-19: EGUNERATZEA

EMAK ez du loturarik aurkitu COVID-19aren aurkako ARNm-ren txertoen eta hilekorik ezaren artean
COVID-19aren ondoriozko lanerako aldi baterako ezintasunaren prozedura eguneratu da

4

[Jarraitu irakurtzen](#)

HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARTZEAK

Ekaineko hornidura-gabezia eta -berrezartze esanguratsuenak

5

[Jarraitu irakurtzen](#)

BERRIKUNTZAK PRESIDEN

Farmabide bidez medikazioa jasotzen duten paziente egoiliarak identifikatzea

6

[Jarraitu irakurtzen](#)

TXERTOAK

Zoster Herpesaren aurkako txertoaren eskuragarritasuna

7

[Jarraitu irakurtzen](#)

ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC: "Erizainaren indikazioa: prozesu arinetarako sendagaien gida"
i-botika: "Farmakontaminazioa"

8

[Jarraitu irakurtzen](#)

LMAF ETA MEDIKAZIOA BERRIKUSTEA: BETE GABEKO MEDIKU LANPOSTUAK

Paziente pluripatologikoak

9

[Jarraitu irakurtzen](#)

1

FARMAKOEN SEGURTASUNA

Hidroxietil-almidoi soluzioen merkaturatzea eten da

Hidroxietil-almidoi (HEA) soluzioak hemorragia akutuak eragindako hipobolemiaren tratamenduan gomendatzen dira, tratamendua kristaloideekin bakarrik nahikoa ez denean.

HEA soluzioen onura/arrisku balantzea behin baino gehiagotan berrikusi da. 2022ko otsailean, PRACek ondorioztatu zuen 2018an sartutako murrizketek ez zutela lortu erabilera egokia bermatzea; beraz, HEA erabiltzearekin lotutako arriskuek onurak gainditzen dituztela kontuan hartuta, EBn merkaturatzeko baimena etetea gomendatu zuen ([ikusi MUH \(FV\) 01/ 2022 informazio-oharra](#)).

AEMPSek jakinarazi du Espainian HEA (Isohes®, Voluven® eta Volulyte®) duten medikamentuak merkaturatzeko baimena 2022ko abenduan etengo dela ziurrenik. Egun horretara arte, baimendutako erabilera-baldintzak zorrotz betez erabili beharko dira medikamentu horiek, HEA soluzioetarako sarbide kontrolatuko programa barne.

Oharrerako sarbidea [hemen](#)

Dapagliflozina, ez erabili 1 motako diabetes mellitusa tratatzeko

Dapagliflozina monofarmako gisa Espainian 10 mg-ko aurkezpenean baino ez dago merkaturatuta, eta 2 motako DMrako baino ez dago baimenduta. Espainian merkaturatu ez bazen ere, aldi batean, dapagliflozina 5 mg-ren fitxa teknikoak 1 motako DMren indikazioa jasotzen zuen (tratamendua hasi aurretik arriskuak minimizatzeko neurri batzuk behar ziren).

Dapagliflozinarekin tratamendua zuten 1 motako DM zuten pazienteetan, 100 pazientetik 1ean gutxienez, zetoazidosi diabetikoa agertu zenez, laborategiak paziente horien indikazioa ezabatzea erabaki zuen. 2021eko azaroan, AstraZenecak eta PRAC/CHMPk osasun-profesionalentzako gutun bat argitaratu zuten, honako hau gomendatuz:

- 1 motako DM duten pazienteetan, diabetesa zaintzen espezializatutako medikuek dapagliflozina etetea, klinikoki praktikoa izan bezain laster.
- Dapagliflozina bidezko tratamendua eten ondoren, gluzemia maiz kontrolatzea, eta intsulina-dosia kontu handiz handitzea, hipogluzemia izateko arriskua gutxitzeko.

Eskutitza [hemen](#) ikusi

Bribudina: fluoropirimidinen toxikotasun potentzialki hilgarria, baldin eta lehenago, aldi berean edo bribudina bidezko tratamendua amaitu ondorengo 4 asteetan ematen badira

Bribudinak, bere metabolito bromobinil urazilo nagusiaren bidez, dihidropirimidina deshidrogenasa (DPD) inhibitzen du, [fluorourazilo](#), [kapezitabina](#), [tegafur](#) eta [fluzitosina](#) bezalako medikamentuak metabolizatzen dituen entzima. Inhibizio entzimatiakoaren ondorioz, fluoropirimidinen mailak gora egiten du. Elkarreagin hori hilgarria izan daiteke, eta, beraz, kontraindikaturak dago:

- Fluorouraziloa duten sendagaiekin kimioterapia antineoplasikoa aurreko 4 asteetan jaso duten, jasotzen ari diren edo jasotzea aurreikusita dagoen pazienteetan, horien prestakin topikoak, profarmakoak (adibidez, kapezitabina, tegafur) eta printzipio aktibo horiek edo beste fluoropirimidina batzuk dituzten farmakoen konbinazioak barne.
- Fluzitosinarekin tratamendu antifungikoa jaso duten edo jasotzen ari diren pazienteetan, kopuru txiki bat fluorouraziloan metabolizatzen delako.
- Paziente immunodeprimetuetan, adibidez, duela gutxi kimioterapia antineoplasikoa jaso dutenak edo jasotzen ari direnak, edo terapia immunosupresorea jasotzen ari diren pazienteetan.

5-FUaren toxikotasun-sintomek goragaleak, gorakoak, beheakoak eta kasu larrietan estomatitisa, mukositis, nekrolisi epidermiko toxikoa, neutropenia eta hezur-muinaren depresioa barne eragin ditzakete, eta hilgarriak izan daitezke.

Prekautzio gehigarri gisa, [DPD entzimaren jardura monitorizatu](#) behar da 5-fluoropirimidina motako medikamentuekin tratamendua hasi aurretik, duela gutxi bribudinarekin tratatu diren pazienteen kasuan.

Bribudinarekin tratamenduan dauden pazienteek 5-FU edo lotutako sendagaiak istripuz ematen bazaizkie, [bi sendagaiak eten egin beharko dira, eta neurri intentsiboak hartu beharko dira 5-FUaren toxikotasuna murrizteko](#). Azkar ospitaleratzea gomendatzen da, baita infekzio sistemikoak eta deshidratazioa prebenitzeko neurriak hartzea ere.

Bribudina duten medikamentuen ontzian Pazientearentzako Informazio Txartel bat (PIT) sartuko da, hilgarria izan daitekeen elkarreragin horri buruzko informazio garrantzitsua bertan emateko. Pazienteak edozein medikurekin duen edozein kontsultatara eraman beharko du PITa, eta farmazialariari erakutsi beharko dio beste edozein sendagai eman aurretik, gutxienez bribudina bidezko tratamendua amaitu eta 4 astez. Informazio guztia, administratu aurreko check-list bat barne [hemen](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

2 MONKEYPOX

Hilabete honetan zehar Monkeypox edo tximinoaren baztangaren protokoloaren hainbat eguneratze argitaratu dira. Aurreko protokoloekiko desberdintasun nagusiak hauek dira: Monkeypox edo tximinoaren baztangaren protokoloaren hainbat eguneratze argitaratu dira hilabete honetan (azkena uztailaren 4an). Aurreko protokoloekiko desberdintasun nagusiak hauek dira:

- Aldaketak kontaktu estuen definizioan eta maneian
- Egiaztatutako kasuak lekualdatzeko jarduketa
- Kontaktuen txertaketari buruzko informazioa
- Hondakinak garbitzeari eta maneiatzeari buruzko aldaketak
- Aldaketak prebentzio-neurrien gomendioan

Protokolorako sarbidea [hemen](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

3 HILABETEKO BERRIKUNTZAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN

Hilabete honetan ez da berririk izan.

2020ko urtariletik 2022ko ekainera arteko berrikuntzak jasotzen dituen dokumentura sartzeko, egin klik [hemen](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

4 COVID-19: EGUNERATZEA

PRAC batzordeak ez du loturarik aurkitu COVID-19aren aurkako ARNm-ren txertoen eta hilekorik ezaren artean

Europar Medikamentuen Agentziak (EMA) ondorioztatu zuen ez zegoela nahikoa froga COVID-19aren aurkako Comirnaty® eta Spikevax® txertoen eta hilekorik gabeko kasuen arteko lotura kausala ezartzeko. Batzordeak eskura zituen datu guztiak ebaluatu zituen, literaturako aurkikuntzak eta EudraVigilance-ri jakinarazitako amenorrea kasuak barne, eta pentsatu zuen eskuragarri dauden datuek ez dutela lotura kausalaren alde egiten, ez eta produktuari buruzko informazioa eguneratzea txerto bakar baterako ere.

Batzordeak kontu handiz jarraituko du arazo hori monitorizatzen, eta merkaturatzeko baimenen titularrei eskatu die Comirnaty® eta Spikevax® sistemarako segurtasuna eguneratzeko aldizkako hurrengo txostenetan sartzea.

Ikusi PRAC txostena [hemen](#)

COVID-19 arloan lanerako aldi baterako ezintasunen (ABE) prozedura eguneratzea

Ekainaren 27an, COVID-19ak eragindako aldi baterako ezintasunetan (ABE) jarduteko jarraibideak eguneratu dira, COVID-19aren aurkako zaintza eta kontrol estrategia berriaren arabera. Dokumentuan hainbat alderdi zehazten dira, hala nola: infekzio aktiboaren proba diagnostikoak (PDIA) nori egin, ABE bat nori igorri edo ABEak izapidetzeko orduan zein kode aukeratu behar diren.

Dokumenturako sarrera [hemen](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

5 HORNIDURA-GABEZIAK ETA HORNIDURA-BERREZARTZEAK

Hilabete honetako **HORNIDURA-GABEZIA** esanguratsuenak:

- **Coronur Retard®** 40 mg 30 askapen luzeko konp. (isosorbida mononitrato). Berehalako askapeneko pilulak daude edo 50 mg askapen atzeratukoak
- **Vitamina B12 Farmasierra®** 1000 mcg 28 kaps. (B12 bitamina). Alternatiba: Cromatombic® edo Optovite B12® anp.
- **Ikervis®** 1 mg/ml kolirioa emulsioan dosi bakarreko 0,3 ml 30 ontzi (ziklosporina). Beste tratamenduen erabilera baloratu
- **Miflonide Breezhaler®** 400 mcg 60 kaps inh (budesonida)
- **Noiafren** 10 mg (klobazam): 20 mg-ko aurkezpena eskuragarri
- **Oftalmolosa Cusi De Icol®** pomada (kloranfenikol, dexametasona). Baloratu printzipio aktibo bakoitza bereizita erabiltzea. Alternatiba: Terracortril® pomada esteril otiko-oftalmikoa
- **Oftalmolosa Cusi Dexametasona®** pomada. Eskuragarri dexametasona kolirioan
- **Rigevidon®** 0,15 mg/0,030 mg 21 pilula (lebonorgestrel/etinilestradiol). Alternatiba: finantzatu gabeko konposizio bereko tratamenduen erabilera, Microgynon® edo Seasonique®
- **Typhim®** VI 25 mcg/0,5 ml aurrez kargatutako xiringak (txerto antitifoidea). Alternatiba, Vivotif® kaps.
- **Urinorm®** 100 mg 30 konp. (benzbromarona). Atzerriko medikamentuen bidez eska daiteke.

HORNIDURA-BERREZARTZEAK:

- **Amchafibrin®** 500 mg sol. injektagarria
 - **Atrovent nasal®** 0,30 mg/ml sudurreko lainozt.
 - **Benadon®** 300 mg 20 konp. estaliak
 - **Benerva®** 300 mg 20 konp.
 - **Codeisan®** 28,7 mg 10 konp. eta 1,26 mg/ml jarabea
 - **Ezetimiba/Atorvastatina** 10/80 mg 30 konp.
 - **Lambdalina®** 40 mg/g 30 gr krema
 - **Risperidona Flas** EFG 2 mg 56 konp.
 - **Trangorex®** 150 mg/30 ml sol. injektagarria
 - **Urbason®** 250 mg hautsa + disolbatzailea, sol. injektagarria
-

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke: [Hornidura gabezien taula](#).
Presbiden, zuzenean taula honetara daraman “Hornidura ezak” botoi berria txertatu da.



CIMA-AEMPSen: [AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

6 BERRIKUNTZAK PRESBIDEN

Duela gutxi, Farmabide bidez medikazioa jasotzen duten zentro soziosanitarioetako pazienteak identifikatzen dituen ohar bat sartu da Presbiden. Instituzionalizatutako paziente horiei astean behin zerbitzatuko zaie Presbiden aginduta duten medikazioa, Galdakaon kokatuta dagoen biltegitik.

Gaur egun, Ama Xantalen (Bidasoko ESla), eta Arratia eta San Roke (Barrualde-Galdakao ESla) zentroak dira zerbitzu hori dutenak. Urtean zehar zentro berriak sartuko dira banaketa-sistema honetan.

Paziente horiei preskripzio bat sortzean, beste sinbolo bat gehitu da Presbiden, urdin koloreko liburu ireki bat (). Horrek esan nahi du sendagai hori Farmabide zirkuiturako hautatuta dagoela, eta Osakidetzako biltegitik zerbitzatu ahal izango zaiola. Paziente horiei agintzen zaien gainerako medikazioa (Farmabidetik kanpokoa) farmazia-bulego bidez emango zaie.

Paziente horietan Presbiden agertzen den mezua hau da (**gorri kolorean**):

KONTUZ Paziente honek FARMABIDE banaketa-sistema zentralizatuaren bidez jasotzen du medikazioa.

Farmazia-bulego batean emateko preskripzio bat egin nahi baduzu

GOGORATU preskripzioa egitean “___” marka hautatu behar duzula “Ezin da eman” eremuan.

[Itzuli HASIERAra](#)

7 TXERTOAK

Osasun Sailak jakinarazi du Zoster Herpesaren aurkako txertoa eskuragarri dagoela txertaketarako xedetaldetzat hartu ziren arrisku-talde guztientzat, eta, beraz, gaur egun ez dela egokia taldeak lehenestea, baizik eta edozein arrisku-taldeetako kide diren pertsona guztiak txertatzea.

Gogoan izan txertoa jarri beharreko taldeetan pertsona hauek daudela:

- 1.Zelula ama hematopoietikoen transplantea
- 2.Organo solidoaren transplantea azken bi urteetan
- 3.Hemopatia gaiztoak fase aktiboan
- 4.Ahozko tratamendua, anti-JAK farmakoen bidez
- 5.Organo solidoaren transplantea duela bi urte baino gehiago
- 6.GIBa
- 7.Kimioterapiaren tratamendua izaten ari diren tumore solidoak.

Ikusi Osasun Sailaren [informazioa](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

8 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

INFAC buletina: “[Erizainaren indikazioa: prozesu arinetarako sendagaien gida](#)” INFAC buletin berria eskuragarri dago.

Buletin honen helburua da sendagaien egokitzapena eta erabilera orientatzea lehen mailako arretan ohikoenak diren prozesu arinetan, erizainen indikazioaren testuinguruan, erabilerari buruzko informazio praktikoa gehituta.

INFACeko ale guztiekin bezala, buletinean landutako gaiari buruzko PowerPoint [aurkezpen](#) bat dago.

i-botika: “[FARMA-KUTSADURA: sendagaien ingurumen-inpaktua](#)”. Sendagaiek ingurumenean eduki ditzaketen ondorioei buruzko alea.

[Itzuli HASIERAra](#)

9 LMAF ETA MEDIKAZIOA BERRIKUSTEA: BETE GABEKO MEDIKU LANPOSTUAK

Osakidetzak tratamenduen luzapen automatikoa mantentzen du bete gabeko absentsia luzea duten kupo medikoetako pazienteetan, betiere dagokion ESIak hala eskatzen badu. Lehen Mailako Arretako farmazialariok (LMAF) konpromisoa hartu dugu kupo horietako paziente pluripatologikoen (PPP) medikazioa berrikusteko.

Pazienteak identifikatu eta LMAFen agendan zitatzen dira, eta bertatik segurtasunean oinarritutako azterketa bat egingo da, preskripzioan aldaketak eskatzen dituzten akatsak detektatzeko (kontuan hartuta ez dituela ohiko medikuak egin beharko).

Axikimenduat, egokitzapena (gehieneko dosiak, interakzio larriak, bikoiztasunak, karga antikolinergikoa 70 urtetik gorakoetan, tratamenduaren iraupena) eta giltzurrun-funtziora doitzea berrikusten dira, iragazketa glomerularrari buruzko datuak daudenean (antidiabetikoak, ahotiko antikoagulatzaileak, AIEE, whammy hirukoitza).

Mediku batek berrikusi beharreko IKKen zerrenda LMAUko buruari edo ESI bakoitzean horretarako zehaztutako profesionalari jakinaraziko zaio, hala badagokio, Presbiden proposatutakoak egiteko eta pazienteei tratamendu-aldaketen berri emateko edo azaltzeko.

[Itzuli HASIERAra](#)

Argitalpen honen edukia Osakidetzako Lehen mailako Arretako Farmazialariek egindako hileroko buletinetik egokitu da

Lehen mailako Farmazia / Farmacia Atención Primaria
ESI ARABA: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José

